

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz*



Aurkibidea

# Udalerria: Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz

## Sarrera



Bizkaiko Lea-Artibai eskualdean kokatutako udalerria da. 24,5 km<sup>2</sup> eta ia 400 biztanle ditu. Herria honako auzoek osatzen dute Munitibar eta Gerrikaitz kaskoetz gain: Arbatzegi, Berreño-Aldaka, Uriona, Gerrika eta Totorika. Lea ibaiak zeharkatzen du eta Oiz (1.029 m) mendiaren magalean dago. Muxika, Mendata, Ziortza-Bolibar, Aulesti eta Berriz ditu mugakide. Historikoki Arbatzegi elizatea zen eta Gerrikaitz uria edo hiribildua; bere hurbiltasunagatik (Lea ibaiak baino ez ditu banatzen) azkenean "Munitibar" eremu osorako izenaren gerizpean fusionatu zirenak: 1883an bat egin zuten. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMako (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 377
- **Euskaldunak:** %91,24

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **27**
- Zintak: **34**
- Pasarteak: **128**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **126**

## Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Munitibarko ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

## Hizlariak

### **Pilar Amesti Armaolea** (1926-2016)



Gerrikaitz auzoko Bengola baserrikoa. Mendatako [Bittor Irazabal](#)ekin ezkondua. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

### **Txomin Apoita Zubizarreta** (1924-2012)



Munitibarko Aldaka auzoko Loiti baserrian jaio zen 1924an. Aita Bolibarko "Zeinke" (Zeinka) auzokoa zuen eta ama Barinagakoa. Zazpi neba-arrebatatik gazteena da; bere neba-arrebak Bolibarko Zeinkan jaio ziren. Bederatzi urte gaz Arratera joan zen meza-laguntzaile lanetan 12 urtera arte, eta gerra hasierak bertan harrapatu zuen. Markinako harrobian aritu zen zazpi urtez beharrean, ostean Gernikako Toñan eta bost urtez Maierren zaintza lanetan. Munitibarko Totorika auzoko Junene baserriko Maria Irustarekin ezkondu eta bost alaba izan zituzten. Ezkondu ostean, Bolibarko Zeinkako Loiti baserrira joan ziren bizitzera. Duela 35 urtetik Gernika-Lumon bizi dira. Emazteagaz batera egin zitzaion elkarrizketa.

### **Elias Arrate Armaolea** (1903-1994)

Munitibarreko bizargilea. 18 urterekin zabaldu zuen denda eta bizarra kentzeaz gain abarketak ere egiten zituen dendan bertan edo inguruko herrietakoetan saltzeko. 1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

### **Miren Karmele Artaetxebarria Bilbao** (1934)



Totorika auzoko Larriñazar baserriko alaba. Aita Munitibarrekoa zuen eta ama Uriona auzokoa. Zortzi senidetan zazpigarrena izan zen. Munitibarreko eskolan ibili ostean, Gasteizko kolegio batean eta Bilbon egon zen. Bilbon osaba-izeko batzuen etxean egon zen bizitzen eta hango bizimodura ondo ohitu zela dio. Izan ere, gerora bere adinekekoekin alderatuz nahiko modernoa izan da: prakak gazterik jantzi zituen, gidabaimena atera zuen... Baserriko bizimodua ez zuen oso gogoko eta ezkondu ostean, Gernika-Lumon denda zabaldu zuten eta bertan aritu zen erretiratu artean. Berreño auzoko Astorkira ezkondu zen [Jesus Ituarte](#)gaz. Biek batera eman zizkiguten lehengo bizipenen berri.



**Luis Mari Arteatz Atxaerandio** (1948)

**Asun Aspiazu Jaio** (1924)

Barrenekua baserrikoa.



**Agustin Basterretxea Solozabal** (1922-2012)

Munitibarko Totorika auzunekoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko.

**Jazinto Basterretxea Zuberogoitia** (1930-2020)



Berreño auzoko Susaeta baserrian jaio zen 1930. urtean. Ama Aulestitik bere jaiotetxera etorritakoa zen eta aita Mendatako Solaburukoa. Bost neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Gerra Zibilean, etxetik joan behar izan ziren ugazabak irten eraginda eta Madarieta baserrian egon ziren 19 urtez, Aldakazabalera joan arte. Geroztik, bertan bizi izan zen. 1954. urteko abenduan osabarengana joan zen Idahora (AEB) eta 7 urtez artiu zen artzain beharretan. Ameriketatik bueltatu eta "kamiñeru" lanetan ibili zen erretiratu zen arte. Hala ere, sekula ez ditu baserriko lanak eta bertako bizimodua utzi. Totorika auzokoa du emaztea.

**Fermin Bernedo Uriarte** (1924-2017)

Gerrikaizko Elbirena (Taberna zaharra) etxekoa.

**Eugenia Eguen Bengoetxea** (1936)



Totorika auzoko Montezuri baserriko alaba. Bederatzi neba-arrebatatik laugarrena izan zen. Umetan baserriko beharrek uzten zutenean joaten ziren eskolara, beti izaten baitzuten behar asko egiteko. Hamabost urte gaz Lekeitioko medikuarenera joan zen neskame lanetan. Gerora Enperatriz hotelean ere aritu zen. Bere auzoko Arrizabalaga baserriko [Jose Manuel](#) legaz ezkondu eta bertan osatu zuen familia; biek batera kontatu zizkiguten lehengo bizimoduari buruzko kontuak.

### **Maritxu Eguen Bengoetxea (1929)**



Totorika auzoko Montezuri baserriko alaba. Hamalau neba-arrebatatik bigarrena izan zen eta etxean zuten beharra zela-eta, hamahiru urtegar Txori tabernara joan zen neskame. Hiru urtez Txorin egon ostean, Bolibarko medikuarenera joan zen eta medikuagaz Somorrostron eta Larrabetzun ere egon zen lanean. Bere auzoko [Angelita Mallea](#)gaz eta Gerrikaizko [Julia Zuazoga](#)z batera kontatu zizkigun beraien ume eta gazte garaiko Munitibarko kontuak. Argazkian ezkerrean agertzen dena da Maritxu.

### **Patxi Etxabe Bilbao (1926-2014)**

Munitibarko Uriarte baserrikoa. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2013an.

### **Jose Inazio Ibaibarriaga Jaió (1928)**

Munitibarko Mintegi baserrikoa.

### **Kepa Intxausti Rekalde (1956)**

Munitibarko Errotakoa.

### **Bittor Irazabal (1926)**

Gerrikaitzen jaioa, bertan bizi izan da beti. Ehiza eta txori kontuak izugarri gustatzen zaizkio, eta horren gainean azalpen zabalak eman ditu.

### **Esteban Irusta Mallea (1934)**

Munitibarko Totorika auzoko Junene etxean jaioa. Ama Mallene baserrikoa zuen eta aita Junenekoa bertakoa. 9 neba-arreba izan ziren. [Maria](#) arrebarekin batera egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek, gerrako kotuak jasotzeko.

### **Maria Irusta Mallea (1928)**



Munitibarko Totorika auzoko Junene etxean jaio zen 1928an. Ama Mallene baserrikoa zuen eta aita Junene bertakoa. 9 neba-arrebatatik hirugarrena da bera. 6 urterekin hasi zen eskolan eta gerra sasoiari Bilbora joan zen, lehenengo Indautxura eta gero Plaza Barri ondoko etxe batera. Aldaka auzoko Loiti baserriko Domingo Apoitarekin ezkondu eta 5 alaba izan zituzten. Ezkondu ostean Bolibarko Zeinkako Loiti auzora joan ziren bizitzera. Azken 35 urtetan Gernika-Lumon bizi da. Bere senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

### **Jesus Ituarte Lamikiz-Basterretxea (1924-2021)**



Berreño auzoko Astorki baserrian jaio eta bizi izandakoa, bere ama bezala. Aita Aldaka auzoko probalari ezaguna izan zen. Gerra aurreko eta osteko Munitibarreko gorabeherak ondo gogoan ditu. Munitibarreko bonbardaketa eguna Gernika erre zuten bera izan zen eta Jesus Gernikan egon zen orduan, babesleku batean ezkutatuta salbatu zuen bere burua. 40 urtez herriko baserriarren sindikatuko diruzaina izan zen. Etxe ondoan Bermeoko itsasontzietarako ikatza egiten zuten. Herriko lehenengo motorretako bat berea izan zen. Ezkondu ostean, Gernika-Lumon supermerkatua zabaldu zuen emazteagaz batera. Bere emaztea, Totorika auzoko [Miren Karmele Artaetxebarria](#), ere aritu zen beragaz batera antzinako kontuez berbetan. Baserriko beharretan aritu izan da beti.

### **Jose Manuel Jaio Madariaga Arrizabala (1932-2019)**



Totorika auzoko Arrizabalaga "Arrizabala" baserrian jaio zen. Ezizena ere jaiotetxekoa du. Aita bertakoa zuen eta ama Iruzubietakoa. Gerraosteko eskolan ikasi zuen orduko maisu-maistra gogorrekin. Soldadutzan egon ostean, (Elko, Nevada) joan zen artzain eta kanpero zazpi urtetarako. Handik bueltan bere auzoko [Eugenia Eguen](#)egaz ezkondu zen. Ikazkintzan, gizon-probetan, sokatiran eta trontzan ibilitakoa da, besteak beste. Bere emazteagaz batera egin genion elkarrizketa.

### **Justino Korta Ikaran (1922-2013)**



Ispasterko Larrinaga auzoko Uribarren baserrian jaio zen 1922. urtean. Gurasoak ere bertakoak zituen, aita urte askoan Ameriketara ibilitakoa. Zortzi neba-arrebatatik seigarrena izan zen. Munduko behar klase guztiak egin dituela dio, baina batik bat igeltsero lanetan aritu izan da. Munitibarko frontoia egiten etorri zen Munitibarrera eta bertako Ondamendi tabernako alabagaz ezkondu zen 38 urte zituela. Muslari ezaguna da inguruetan, 63 garaikur baititu, tartean 38 txapel.

### **Angelita Mallea Madariaga (1941-2016)**



Bere abizen bereko Totorika auzoko Malline baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Bolibarkoa. Herriguneko Basterrekoa baserrira ezkondu zen. Bere auzoko [Maritxu Eguen](#) eta Gerrickaizko [Julia Zuazo](#) izan zituen lagun elkarrizketan. Argazkiaren erdian ageri dena da.

### **Joxepa Mendiola Ansotegi (1924-2021)**



Gerrickaitz aldeko Ganbe auzoko Trokazulon jaio zen 1924an. Aita bertakoa zuen, artzaina, eta ama Gautegiz-Arteagakoa. Hamaika neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. Gerrickaitz eta Ganbeko eskolan ibili ostean, umetatik hasi zen beharrean ardizain zein neskame. 32 urte gaz ezkondu zen Olatxu errotara eta bertan osatu zuen familia.

### **Juan Muniozguren Muniozguren Nabarro (1935-2016)**



Gerrickaitzeko Ganbe auzoan jaio zen. Gurasoak lehengusuak ziren: aita bere jaiotetxekoa eta ama Kaltzada auzoko Iporlakoa. Auzoko eskola beraien etxe aurrean dago eta maistra beraienean egoten zen apopilo. Gerra garaian, aita beste herritar batzuek atxilotu eta preso hartu zuten. 17 urte zituela basoko beharretan hasi zen eta baserriko lanekin batera hori izan zuen ogibide.

**Jose Uberuaga Garrogerrikaetxebarria Garro**  
(1929-2018)

Gerrikaitz auzoko Garro baserrian jaio, hazi eta bizi izan da. Ama bertakoa zuen eta aita Bolibarko Gortaguren auzokoa. Lau neba-arreba izan ziren, baina arreba eta ama gazterik hil zirenez, emakume beharrak egitea egokitu zitzaion.



Gerra aurretik Gerrikaizko barberua eta moja izan zituen irakasle. Gerraostean, ostera, Munitibarreko mutilen eskolara joan zen, hor dena zen erdaraz; hala ere, ez ei zuen gaztelaniaz ikasi, soldadutzan ikasi zuen-eta. Herria bonbardatu zutenean, auzoko hiru hil zituzten, tartean lehengusina; eraso beraien etxetik ikusi zuen eta hiru egunez basoan egon ziren ezkutatuta. Hamalau urte zituela hasi zen ehizan eta zaletasun handia izan du. Ezkondu ostean, hiru urtez Idahon (AEB) egon zen aita eta anaiak bezala. Handik bueltan Gernika-Lumoko Dalia lantegian aritu zen beharrean erretiratu arte.

**Jose Urberuaga Urionaguena (1929)**

Goikoetxebarri baserrikoa.

**Juanita Urionaguena Urionaguena (1930)**

Gerrikaizko Aitxarrakoa.

**Julia Zuazo Uriarte (1929)**

Gerrikaitz auzoko "Paraisu"n jaio eta hazi zen. Gurasoak ere gerrikaiztarrak zituen. Gazterik hasi zen neskame lanetan auzoko Mendiola baserrian. Totorika auzoko [Angelita Mallea](#) eta [Maritxu Eguen](#)egaz batera egin genion elkarrizketa.



Argazkian eskumako partean agertzen dena da. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Baserria

#### 1.1. Bizargile eta abarkagile

- **Hizlaria(k)**: Arrate Armaolea, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erkiaga, Josu
- **Erref**: MUN-004/001
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:46



- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Lanbideak » Sastreak, jostunak  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** gaztetan Bilbora sastre ikastera joaten pentsatu zuen, baina azkenean bizargile ikasi zuen. 18 urterekin bizartegia jarri zuen Munitibarren, eta Gernikan ere aritu zen abarketak egiten; azken langintza horretan denbora gutxi iraun zuen. Azkenean, lokak berean jarri zuen abarketan egiteko tailerra eta bizarra kentzekoa. Abarketetarako materiala Azpeitiko Jose Mari Astigarragari erosten zion. Bere dendan eta beste dendei enkarguz ere saltzen zituen.

### Transkripzioa

Bueno... neuk esangotzuk neure gaztetaren asitteko ipointtu batzuk. Da lelengo pentzau naban, ba, sastre jutie Bilbora. Sastre, bai, sei illebeta einjje molda politten negola, ba, etxera ekarri nenduen da, ba, lastima ixen san da, gero, ba, gero, ostabe etxi'n pentzau genduen, ba, aitte sanak pentzauban, ba, ostabe, ba, abarketak edo bixerra kentzen ikesi edo barberijje edo soser, da gero barberijje ikesi naban lelengo ostabe. Da, ba, barberijjoi, ba, ipini naban neuk amasortzi urte neukesanien da gero, ba ostabe abarketak egitten ikesi bidala, ba, da tire... abarketak eitten Gerniken. Da Anjel Lejarreta esetzezana san abarketerue da enaban nik denpora asko eiñ se orduko puntadie botateko manejo andijje artute neun sastrerijjan da. Enaban esebe denporarik eiñ da, ba, tire...

Gero, barberijjok eta sastrerijjok eta, danokiñ ipiñi naban lokalttu bat da gero, ba, oñ iarogei urte eukittuan arte segidutzet lanori da ontxe... urte bi itxitzet danai da oñ emetxe, ba, triski txe traska,.. emetxe selan edo alan. Materijjala, Aspeittittik ekartenaban, Jose Mari... Jose Mari... Jose Mari, Jose Marin tall,.. sertik, tailerretik ekarteneban ori... Astigarraga, Jose Mari Astigarraga da, ba, arek telefoniau eskero be bardiñ botateban: neuk ser bien, axe.

Gero, ba neuk emen abarketak einjje, ba saldu berton eittenittun. Gure ixeben deudaku'pe, ba, eurentzako be ia abarketa batzuk eingo neukosan da... es, esileinan nik eiñ se... astotxintxie ser dan estakixu su' paiña, astun sera... amarrie asko eittenaban iigias da are'pe asko... dendakuek siren, Gernikako dendak eta ferreterijjetaku'k eta asko kasteteben, Markiñeku'pe bai tte, ta, ba, danak eitteko ta, ba, eitten be denpora ona bada bierra soser ein bier da, ba, alatxik neure abarketok eta, ba, gero egunin dosena bat eitteko abilldadie euki naban, tela ta aspi.

## 2. Ohiturak eta bizimodua

### 2.1. `Markesaren alaba´ eta beste koplak zahar batzuk

- **Hizlaria(k):** Arrate Armaolea, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Erref:** MUN-004/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:46. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Markesaren alaba´ eta beste koplak zahar batzuk abesten ditu segidan.

## **Transkripzioa**

Seruak eta lurrak  
egin situsana  
memoriya argitzen  
dator guregana.

Esperantzia badaukat  
sedorrek emana  
kunplituko dedala  
desio dedana.

Desio dedan itza  
manifestatzeko  
seurekiñ Antonio  
nago ixateko.

Amaren malesia  
korriora joan da  
Antonio il sala  
egin suen karta.

Gabe pasatu eta  
biyamon goixian  
entiarrua suen  
biarren klasian.

Markesaren alabak  
eruan tristesa  
eseukan amairik ee  
se lagunei segitako.

Exosuak aides aides  
iferra dulsie??  
landan mintzen dorrien  
errekie. ?

Andixek nentorrela  
topau neban birjiña ai andrie  
orrasketan ebala  
buruko ulie.

Etzi bada ai andrea,  
neuk ulan sintie  
kanie mosten duket?  
Madrillen kostie.

Eunteietan daukagu  
Medisia telie  
urriagas ideskiten?  
siderra minbie?

Nor edo seiñ ete da  
areren joslie

### 3. Familia eta harremanak

#### 3.1. Hilekoa zer zen ere ez zekiten

- **Hizlaria(k):** Eguen Bengoetxea, Maritxu; Mallea Madariaga, Angelita; Zuazo Uriarte, Julia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUN-016/022
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:54:13. **Bukatu:** 00:58:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Ur berorik ez zegoenez, hilekoarekin zeudenean ez bainatzeko edo ez garbitzeko esaten zieten, hilekoa moztuko zitzaielakoan. Hilekoa etorri zitzaienean zer zen ere ez zekiten, eta hilekoarekin zeudenean jantzen zituzten trapuak ezkutuan garbitu behar izaten zituzten, ur beroa eta lixibaz.

#### Transkripzioa

- Esan dozu garbitxu domekatan baiña hillekuekaz egonda-eta, andrazkoa?
- Angelita: Bueno, ordun ba zozer. Gauza haundik ez ordun be garbittu.
- Julia: Ordun be, asko ez.
- Angelita: Esan gure dotena /guotena/, domeketan bai baiña bixen bittartin...
- Bai baiña diñot, hillekuekaz egon ezker eta igual hori be, garbitxuko ziñien orduen.
- Angelita: Garbittu bai baiña ez esan gure dot /gurot/...
- Julia: Oingo besterik ez. Oingo bestin.
- Angelita: Hori baño gogorraue, hillekuaz eoten zanin ez zala baño biher esaten eben. Kortau eitten zala hilleku te. Bai, ez zala baño biher. Osea gorputzen kontrasti. Klaro, ordun ur beroik bez ta ur hotzagaz baño biher ta hori gorputzen kontrastiaz ez zala baño biher.
- Maritxu: Txarra dala esaten eben bai.
- Angelita: Hori esaten eben. "Ene, umie gero, ez zaitzez busti gero hilekuaz ta zaz, ume!"
- Zuek jakin zenduen zer zan hillekue?
- Angelita: Bai zera jakin.
- Heldu zan egunien?
- Julia: Zer etorri biher ete ban hantxe.
- Angelita: Zer ete dan. Nik neuk badakit: "Ama, nin neu odoletan naz. Nik ez dakit zer deketan". "Trankil trankil, ez da hori ezebe ta baiña, aurretik ezebez.
- Julia: Oin dakizienan erdixe bez.
- Angelita: Ta berak konpresa batzuk eta baiña telazkuk e bueno, pañozkuek, pañozkuk eindde ta. Eukitten zittuezan.
- Julia: Baña oinguk jaurti eitten di ta harek garbittu ein biher zin /bizin/ .
- Angelita: Bai, harek garbittu ein biher zin /bizin/. Ta iñok ikusi ez daixen gordeta ixil-ixilik.

- Maritxu: Siketzen be ni akordetan na baten siketzen ipini nittuzen holan e zerin de gure amumak: "Horrek ez di ipintten hor bistan".

- Angelita: Bai, bai, hoixeaittik ba, harek ezkutaute, harek iñok ez zittun ikusi biher. Harek sagrauek zin. Gauza sagrauek zin harek.

- Julia: Iñor ez euen artien garbittu te...

- Angelita: Bai, iñor ez dauenin garbittu be.

- Maritxu: Horrek hor bistan ez di ipintten.

- Julia: Iñok ikusi ez daixen.

- Ta horrek be suteko heutsegaz?

- Angelita: Bueno ez gure denporan baeuen ia lejia, baeuen lejia. Lelengo jabonaute biher dan modun /bidamodun/ ta gero lejiaz ta. Bai baeuen lejia, gure denporako baeuen.

- Baiña horrek garbitzie erreza ez zan izengo ba, pañuek-eta.

- Angelita: Puf! ademas siketute, harek.

- Maritxu: Siketute bai, baiña momentun eindde arin kentzen zin e!

- Julia: Bai ba, jaboiaz ta errez garbitzen eben. Apur bat siketzen badie gogortu eitten zin.

- Angelita: Bai, bai, baiña iñor etxin egoten bazan ezin zenduzen garbittu.

- Maritxu: Ni jeneralin bakarrik egoten nitzen etxin ta.

- Angelita: Bai, hoixe, bakarrik egon ezkeru zozer.

- Maritxu: Danak egoten zin kanpun biherrin ta ni bakarrik hantxe.

- Angelita: Iñor eoten bazan etxin ezin zenduzen garbittu, iñor etxin ez dauenin.

- Julia: Neuk be Mendiolan egon nitzenin, harek danak ebixen artien garbitzen nitxun harek ta balkoien ipiñi, balkoien barrun.

- Angelita: Ta gero, erdi bustixek badaz ba hau edo barrure sartu, iñok ikusi ez daixen.

- Julia: Jesus...

- Angelita: Horrek holantxeik die.

- Maritxu: Lehen etxin umik be hoixe, zerakin ipintten zin...

- Angelita: Bai, zerak, pañuk, pikuk, pikuk. Hiru puntuko...

- Maritxu: Gasak azpidxen. Ta harek be garbittu ein biher ixeten zin.

- Angelita: Bai, harek be garbittu ein biher izeten zin.

- Maritxu: Bai, oingo modun bota ez.

- Angelita: Bai, geure umin denporan be bai e!

- Maritxu: Geure umin denporan be bai.

- Angelita: Ta gero zelako bentajie honek bestiok etorri ziñin, bueno, botatekuk danak. Diferente.

- Maritxu: Ta harek be ur irakiñe bota ta lejiaik ez jakuela /etxakuela/ ipiñi biher umin zerai ta.

- Julia: Eperdixe erretan jakie.

- Angelita: Bai, eperdi ta harek be jabon-uraz pixkat e egosi, zera egosi.

- Maritxu: Egosi ur beruaz ta kentzen dxakuezan mantxak.

- Angelita: Garbitzen zin.

- Julia: Ez zin errezak egoten gero.

- Angelita: Ez, ez, ez.

- Maritxu: Ta ba holantxeik. Holantxeik zan gure bizimodue.

- Julia: Oingu ikusi. Oinguk holakuk izen bazittuan, eneei!

- Angelita: Siñestu bai ala?

- Julia: Zertzuk pasau biko zittuen.

- Angelita: Siñestu bai?

- Siñestu bai, baia. Siñestu bai baiña.

- Angelita: Neuk dakitteten baten hoixe esan da: "calla abuela" esango dabe, "eres más antiguadas, dices cada disparate". Lehenengoko berbie.

- Julia: Bai, Iziarrek-eta.  
- Angelita: Bueno!

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Neskak eskola batera, mutilak bestera (MUN-003/004)**

Sei urte inguru zituztela hasi ziren eskolan; neskak eskola batean, eta mutilak beste batean. Neskak maistrarekin eta mutilak maisuarekin ibili ziren. Irakasleak kanpokoak izaten ziren; erdaldunak. Mutilen maisua "okerra" omen zen; Mariaren anaiei erregelarekin buruan jotzen zien. 80 mutiko inguru egoten ziren maisu bakarrarekin. Txominek eskolako pasadizo bat kontaktzen du.

### **2. Gerra denboran, Bilboko familia baten etxera (MUN-003/005)**

Gerra denboran, bonbardaketa garaian, Munitibarren zegoen Maria. Gero, Bilboko familia batek beren etxera eraman zuen; eskolara joaten zen, eta etxean lana egiten zuen. Bilbon urte batzuk egin zituen. Gerraostean, ez zen Munitibarko eskolara joan.

### **3. Arratera, monagilo (MUN-003/007)**

Arraten "monagiloa" behar zutela eta, bederatzi urte zituela joan zen hara Txomin. Gerra hasi zen egunean, Arraten zegoen. Munitibar eta Arrate artean dauden 45 kilometroak oinez egiten zituen, mendirik mendi. Arrateko eskolan ibili zen. Maistra batek ematen zien eskola, eta auzoko 16-17 neska-mutil ibiltzen ziren bertan. Munitibarko eskola baino hobea zen Arratekoa.

### **4. Doktrina eta abadeak (MUN-003/008)**

Doktrina euskaraz ikasten zuten. Garai hartan, eskola baino garrantzitsuagoa izaten zen doktrina. Herrian hiru abade zeuden; gerra denboran, denak desagertu ziren. Garai batean, Gerrikaitzen bi eta Munitibarren hiru abade egon ziren.

### **5. Koroan abestutakoa (MUN-003/009)**

Mariak elizan kantatzen zuen. Koruko entseguetarako buruz hitz egiten du. Erdarazko kantak ikasten zituzten obispa joaten zenerako. Obispa konfirmazioa ematera joaten zen.

### **6. Munitibarko erromeria (MUN-003/012)**

Umetan, San Pedro eguneko erromeriara joateko baimena ematen zien apaizak; osterantzean, ez zuten baimenik izaten erromeriara joateko. Domekatan izaten zen Munitibarko erromeria, eta fama handia izan zuen. Frontoian egiten zen erromeria, eta inguruko herrietako jendea biltzen zen bertan. Neska-mutilak dantzara ateratzen ziren; mutilei paparrean zerbait jarri eta dantzaldia kobratzen zien. Erromeria arratsaldean hasi eta "aramattekoetarako" amaitzen zen.

## **7. Dantza kontuak konfesatu behar (MUN-003/013)**

Erromeria kontuak. Neska-mutilek "agarrauan" dantza egitea librekoa zen. Mutilekin dantza eginez gero, neskek apaizari konfesatu egin behar izaten zioten larunbatetan.

## **8. Konfesatokiak eta konfesioak (MUN-003/016)**

Konfesatokiak nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Neskak eta mutilak ez ziren toki berean konfesatzen: mutilak apaizaren aurrealdetik; neskak, berriz, alboko saretatik. Konfesatzeko belauniko jarri behar izaten zen.

## **9. Mezara, lastazaoak hartuta (MUN-003/018)**

Baserrian lana eduki arren, mezara joan behar izaten zuten igandetan. Maria eta etxeokak Totorikatik Munitibarrera oinez egiten zuten bidea; lastazaoak erabiltzen zituzten argia egiteko. Lehenengo meza zazpiren izaten zen, eta, gero, meza nagusia egoten zen. Bideak ez ziren onak, eta basa ugari izaten zen. Munitibarrera iritsitakoan, Mariak eta oinetakoak aldatzen zituzten etxe batean; Txominek eta ez.

## **10. Mutilak tabernan, neskak paseoan (MUN-003/022)**

Galarazita zegoen emakumeak tabernan sartzea. Arratsaldetan, mutilak txikito batzuk edatera joaten zirenean, neskak paseoan ibiltzera joaten ziren besotik helduta. Bitartean, mutilak tabernako atean jarri eta neskei begira egoten omen ziren.

## **11. Neska-laguntzak eta kalabazak (MUN-003/023)**

Neska-laguntzei buruz hitz egiten dute. Urruti bizi zen neska bati etxera laguntzea, kalabazak jasotzea... Dantzako garaian, neskak kalabazak ematen omen zizkien gustu ez zituzten mutilei.

## **12. Gona eta oinetakoak (MUN-003/024)**

Erromeriara joaten zirenean, oinetakoa aldatu egiten zituzten; biderako abarkak janzten zituzten gero. Mariak gona plegudunak erabiltzen zituen.

## **13. "Arropa, beti batzuekin" (MUN-003/026)**

Beti arropa bera erabiltzen zuten; "beti batzuekin" dio Txominek. Mahoizko prakak erabiltzen zituen; goizean jantzi eta zikinduz gero, basa kendu, lisatu eta arratsaldean haiekin ateratzen zen berriro kalera. 20 urte inguru zituela hasi zen gabardina erabiltzen. Etxean ez zuten dutxarik.

## **14. Auzokoak orrazten ibilitakoa (MUN-003/029)**

Ile-apaindegira permanentea egin behar zuenean bakarrik joaten zen. Maria auzokoei ilea orrazten ibiltzen zen. Ezkondu eta gero ere igandetan joaten zen auzoko emakume batzuk orraztera. Umeei eta lagunei ilea moztzen zien.

## **15. Injekzioak jartzen ibilitakoa (MUN-003/030)**

Auzokoei injekzioak jartzen ibilitakoa da Maria. Aldian aldian jarri behar izaten zitzaion injekzioa gaixoari, eta holakoetan, gaixoaren etxean geratu ohi zen lotan.

## **16. Herriko medikua (MUN-003/031)**

Txomin eta Maria gazteak zirela, herrian mediku bakarra zegoen. On Pedro Gerrickabeitia zuen izena, eta Munitibar bertakoa zen. Haren emaztea maistra zen. Etxez etxe ibili ohi zen medikua. Herriko gizon bat ibiltzen zen medikuaren zerbitzuak kobratzen.

## **17. Junene etxeko errenta (MUN-003/032)**

Mariaren familia Junene etxean bizi zen; etxeak hiru bizitza zituen. Junene herriko medikuarena zen, eta errenta uztarekin (argia, artoa...) ordaintzen zioten. Urtean behin ordaintzen zuten errenta.

## **18. Ermandadeari buruzko azalpenak (MUN-003/033)**

Baserrien arteko ermandadea zer izaten zen azaltzen dute. Ermandadea elkarri laguntzeko elkarteak zen. Zer galera hartzen ziren kontuan: ganaduren bat hiltzen zenean, denen artean ordaintzen zen galera hura...

## **19. Etxe erre eskean (MUN-003/034)**

Lehen, etxeek ez zuten aseguru izaten. Baserriren bat erretzen zenean, diru-batzeak egiten ziren laguntzeko. Diru asko batzen zen etxe erre eskean.

## **20. Gerra denboran, Arraten (MUN-003/037)**

Gerra denborako oroitzapenak. Txomin Arraten egon zen gerra denboran. Plazentziatik Arratera joan zen gizon baten hitzak gogoratzen ditu. Erasoaldiei eta fronteari buruz hitz egiten du.

## **21. Munitibar eta Gernikako bonbardaketak (MUN-003/038)**

Gerrako oroitzapenak. Munitibar bonbardatu eta arratsaldean, berriz, Gernika erasotu zuten. Txomin Munitibarren zegoen orduan. Maria, zortzi nebarrebak, ama eta osaba batek etxetik ihes egin zuten bonbardaketatik babesteko. Menditik ikusten zuten Gernika gorri-gorri, sutan. Gerrako nahasmenaz, ihesaldiez, beldurraz... hitz egiten dute.

## **22. Bonbardaketa hurrengo eguna (MUN-003/039)**

Gerrako oroitzapenak. Munitibar bonbardatu eta hurrengo egunean herria nola zegoen kontatzen dute. Txomin anaiarekin jaitsi zen herrira: herrian milizianoek utzitako tresna ugari zeuden; mantak, lapikoak, koilareak... Jendeak etxerako hartu zituen soldaduek kalean utzitako tresnak.

## **23. Milizianoak etxez etxe eskean (MUN-003/040)**

Bonbardaketa aurreko egunetan, milizianoak etxez etxe ibili ziren eskean. Milizianoek egun gutxi egin zituzten Munitibarren.

## **24. Koinatua, hildakoen gorpuak garraiatzen (MUN-003/042)**

Bonbardaketa ondorenean, Gernika nola zegoen aipatzen dute. Txominen koinatu bat zortzi egunez aritu zen hildakoen gorpuak kamioian batik bestera garraiatzen; derrigortu egin zuten lan hori egitera.

## **25. Koltxoiak egiteko tela (MUN-003/043)**

Gerra ostean, Gernikan erosten zuten arropa egiteko tela. Garai hartan, koltxoiak egiteko tela marraduna, urdinez tindatuta, saltzen zuten arropak egiteko. Arropak garbitutakoan, tinda galdetzen zuen eta marrak agerian geratzen ziren. Txominen arreba batek zakuarekin arropa josi zuen baserrian erabiltzeko. Diru falta handia zegoen.

## **26. Bonbardaketak Munitibarren eragindako kalteak (MUN-003/044)**

Bonbardaketen eraginez, Munitibarko eliza apurtuta geratu zen. Herrian, etxe batzuk kaltetu ziren bonben eraginez, baina inor ez zen etxe gabe gelditu. Metrailak jotako neska bati buruz hitz egiten du. Soroetara bonba asko bota zituzten Alemanek.

## **27. Kanoi antiaereoak etxe ondoan (MUN-003/045)**

Gerrako oroitzapenak. Txominen etxe ondoan kanoi antiaereoak ipini zituzten. Erasoak nondik nora izan ziren azaltzen du.

## **28. Fusilamenduak, ikusi ezinak eta "txibatazoak" (MUN-003/046)**

Gerrako kontuak. Munitibarren ez zuten inor fusilatu; Bolibarren bai. Zigor moduan, herriko zenbait abertzalek guardia zibiletara joan behar izaten zuen. Herrian "txibatazoak" izaten ziren; ikusi ezina izaten zen. Zenbait baserritako ugazabek (hiru-lau baserri zituen batek) erreteroa bere alderdiari (nazionaleri) botoa ematera behartzen zituzten.

## **29. Arrateko frontea eta 'Abuelo' hegazkina (MUN-003/047)**

Gerrako kontuak. Frontea Arraten egon zen, eta San Esteban egun baten apurtu zuten. Horren ondoren etorri ziren bonbardaketak. 'Abuelo' izenez ezagutzen zen hegazkinari buruz hitz egiten.

## **30. Uzta entregatzeko kupoa (MUN-003/048)**

Gerra ostean, baserritarrek uzta entregatu behar izaten zuten udaletxean. Zenbat eta baserri handiagoa, orduan eta uzta gehiago entregatu behar izaten zen; garia, artoa, ilarra eta patata entregatu behar izaten zuten baserritarrek. Txominek kontatzen du patata erosi egin behar izaten zutela entregatzeko; euren lurrak ez ziren patata ereiteko egokiak. Hiru-lau urtean ibili ziren uzta entregatzen, eta denbora horretan, gosea pasa omen zuten.

## **31. Mendata eta Markinako errotetara (MUN-003/049)**

Errotak itxita egon zireneko garaiaz hitz egiten dute. Mendatarra, Markinara... joaten ziren errotara gauean, ezkutuan. Mendatako Errota Barri, Errota Zuri eta Ikerixe errotak aipatzen dituzte. Munitibarko Goikola eta Elortza errotak aipatzen dituzte.

## **32. Ogi beltza eta txerri-hiltzea (MUN-003/050)**

Errazionamenduko ogi beltza ez zen jateko modukoa. Txerria ezkutuan hil behar izaten zen. Bonbardaketa egunean, txerria hil zuten Mariaren etxean.



### **33. Arroza eta ogi beltza (MUN-003/052)**

Elizpean jasotzen zuten errazionamendua. Errazionamenduko txartelarekin joan behar izaten zen jakiak jasotzera. Abertzaleek arroza ematen zuten; nazionalek, errazionamenduan ogi beltza ematen zuten. Herrian txahala hiltzen zenean, jendea sebo eske joaten zen, olio falta izaten zelako.

### **34. Jatekoa, eratekoa eta jatorduak (MUN-003/055)**

Jateko eta edatekoari buruz hitz egiten dute. Gabonetarako sagardoa ekartzen ibilitakoa da Txomin. Mariak kontatzen du auzoko gizon edadetu batek zahagian edukitzen zuela ardoa. Jatorduetan, denek mahaian ontzi batetik jaten zuten Txominen etxean. Euli ugari izaten zen lehen baserrietan.

### **35. Putzua, erreka eta lixiba (MUN-003/057)**

Baserri ondoan putzua zuten. Zertarako erabiltzen zuten azaltzen dute: arropa garbitzeko, behiei ura emateko... Txominen arrebekek errekan egiten zuten lixiba. Lixiba nola egiten zuten azaltzen du.

### **36. Etxean ura eta arropa garbiketa (MUN-003/058)**

Mariaren etxean ura zuten, nahiko aspalditik. Etxetik hurre iturriak zituzten, eta hara joaten ziren arropa garbitzera (hiru etxetakoak joaten ziren hara). Etxean xaboitzen zituzten arropak, eta gero joaten ziren iturrira. Baldea buru gainean hartuta joaten ziren. Arropa garbiketa emakumeen lana izaten zen. Maria amari laguntzera joaten zen; izarak bihurritzen laguntzen zion...

### **37. Lixiba (MUN-003/059)**

Lixiba nola egiten den azaltzen dute. Arropei usain ona geratzen zitzaaien.

### **38. Domeketan, etxea garbitu (MUN-003/060)**

Etxea nola garbitzen zen. Eskoba erabiltzen zuten; etxe askotan egoten zen "ginderriaz" egindakoa eskoba. Etxea domeketan garbitzen zen.

### **39. Bilboko egonaldiaz (MUN-003/063)**

Maria gaztea zela, hainbat urte egin zituen Bilbon. Ama gaixotu eta etxera bueltatu zen. Bilbon, Indautxuko Karitateko Karmeldarrenean egon zen "interna". Mekanografia eta beste hainbat gauza ikasi zituen han; aldi berean, bertako lanak egiten zituen. Hura utzi, eta Plaza Barri ondoko etxe batean ibili zen josten ikasten. Mariaren amak erabilgarriagoa ikusten zuen josten ikastea makinaz idazten ikastea baino. Etxerako josi izan du.

### **40. Hainbat tokitan lan egindakoa (MUN-003/064)**

Txominek baserritik kanpo egin izan du lana. Markinako harrobian zazpi-zortzi urtean ibili zen lanean. Gero, gaixotu egin zen giltzurrunetako gaitz bat zela eta; baliaezintasuna eman zioten. Horren ostean, Maiarren bederatzi urte egin zituen guarda moduan lanean; zapatu eta domeketan egoten zen han.

### **41. Bi zerrategi herrian (MUN-003/066)**

Garai batean, Munitibarren bi zerrategi zeuden. Zerrategiak non zeuden kontatzen dute. Basoko egurrak zerrategikoek erosten zizkieten.

#### **42. Gernikako plaza eta "erregateroak" (MUN-003/068)**

Maria eta Txominen gurasoak astoarekin joaten ziren Gernikara, plazara. Maria 'Correo' esaten zioten autobusean joaten zen Gernikara, oilo eta guzti. "Erregatero" asko joaten omen zen Gernikako plazara erostera.

#### **43. Markinara, astoan (MUN-003/069)**

Astoarekin joaten ziren Markinara, plazan saltzera. Joan-etorria nolakoa izaten zen kontatzen du. Ateratako dirua amari ematen zion. Patatak, oilaskoak eta arrautzak saltzen zituen gehien bat. Ateratako diruarekin erosketak egiten zituen herrian.

#### **44. Munitibarko dendara, arrautzak eramatera (MUN-003/070)**

Munitibarko dendara arrautzak eramaten zituen Mariak. Azukrea, olioak, txokolata eta kafea erosi ohi ziren dendan; trukea egin ohi zuten. Munitibarren denda eta taberna asko zegoen lehen.

#### **45. Emagina eta Gernikako klinika (MUN-003/073)**

Mariaren amaren sasoian, Bernarda izeneko auzoko emakume bat ibiltzen zen emagin lanetan. Mariak Gernikako Dublang klinikan eduki zituen lau ume; beste alaba bat etxean eduki zuen. Klinika diruz ordaintzen zen.

#### **46. Olgetak: aponka, erre-erreka... (MUN-003/075)**

Ume sasoiko olgetak: aponka, sokadantzan, ezkutaketan, pilotan, erre-erreka... ibiltzen ziren. Mutilak mendira joaten ziren. Neskak eta mutilek ez zuten elkarrekin olgetan. Aponka eta erre-erreka nola olgetan den kontatzen dute. Ez zen jolaserako tarte handirik izaten. Sokadantzako kantak aipatzen dituzte: 'Al pasar la barca' eta 'Cocherito lere'.

#### **47. Munitibarki buruzko kanta (MUN-003/076)**

Munitibarki buruzko kanta bat. Don Ramon abadeak irakatsi zien. Mariak letra aipatzen du.

#### **48. Elizpean, pilotan (MUN-003/077)**

Umetan, elizpeko horman ibiltzen ziren pilotan. Ez zegoen frontoirik herrian.

#### **49. Munitibarko idi-probak, fama handikoak (MUN-003/079)**

Munitibarko idi-probetan jende asko batzen zen lehen. Jendeak joko (apustu) asko egiten zuen. Apustulari bati buruzko pasadizo bat kontatzen dute. Txominek idiak zituen...

#### **50. "Lekeitio, arrain usaina..." (MUN-003/082)**

Mariak familia zuen Lekeitio, eta umetan ikusi zuen itsasoa aurrenekoz. 'Correo' autobusean joaten ziren Lekeitiora. Orduko oroitzapenak aipatzen ditu: arrain usaina...

#### **51. Ezkontza eta eztei-bidaia (MUN-003/084)**

Ezkontza. Munitibarko Sindikatuan egin zuten bazkaria. Bi-hiru eguneko eztei-bidaia egin zuten.

## **52. Bi taxi herrian (MUN-003/085)**

Garai batean, bi taxi egon ziren Munitibarren. Taxi-gidarien izenak aipatzen dituzte.

## **53. Hiletak (MUN-003/086)**

Garai bateko hiletak nolakoa izaten ziren kontatzen dute. Egun bateko gaubeila egiten zen etxean. Gau osoa arrosarioa erresatzen ematen zuten. Auzoko eta familiako gizon nahiz emakume biltzen ziren. Hurrengo egunean, gorpua lurperatu eta meza egiten zen. Meza ostean, bazkaria egiten zen.

## **54. Ur-sagardoa (MUN-003/088)**

Etxeko sagarrekin sagardoa egiten zuten. Ur-sagardoa esaten zioten. Lehenengo egunetan, gozoa izaten zen. Nola egiten den kontatzen dute. "Gazie" esaten zioten sagarrak erabiltzen zituzten sagardoa egiteko. Urtean birritan edo egin ohi zuten sagardoa.

## **55. Sagar marmelada (MUN-003/089)**

Mariaren etxea marmelada asko egiten zen. Sagarrarekin egiten zuten marmelada.

## **56. Hilkutxatik hitz egin zuen gizona (MUN-003/092)**

Euria ari zuela eta, hilkutxa batean sartu zen gizon bati buruzko kontakizuna.

## **57. Argia etxean (MUN-003/094)**

Etxean argia noiz jarri zuten. Txominen etxean beranduago jarri zuten argia. Lehenago, farola, petrolio-argia eta karburoa ibiltzen zituzten.

## **58. Bikotea nola ezagutu... (MUN-003/098)**

Elkar nola ezagutu zuten kontatzen dute. Biak Munitibarkoak izanik, auzo ezberdinetakoak ziren, eta umetan ez zuten elkar ezagutzen.

## **59. Domeketan, barkilleroa (MUN-003/100)**

Gozokiak. Domeketan barkilleroa joaten zen Munitibarrera. Barberuak ere gozokiak edukitzen zituen. Txokolatea ere jaten zuten.

## **60. "Ofizio guztiak zituen gizona" (MUN-003/101)**

Munitibarren bazen gizon bat abarkak egin, gozokiak saldu, gizonei ilea ebakitzen... ziena. Herriko "sakritaua" ere bera zen; "ofizio guztiak zituen".

## **61. Amak egindako galtzak (MUN-003/102)**

Galtzak amak egiten zituen etxean. Artilearekin egin ohi zituen. Artilea erosi egiten zuen.

## **62. Labesua (MUN-003/106)**

Labesua nola egiten den azaltzen dute. Astean behin egiten zuen ogia.

### **63. Gazta zelan egiten den (MUN-006/001)**

Gaztaia egiteko prozesua azaltzen du: esnea iragazi, epela dagoen artean "lierra" (legarra) eman, zurezko irabiagailu batez eragin, eskuz ura kendu eta moldean sartu. Berehala gogortzen da. Saltzeko orduan, ur epelaz garbitu.

### **64. Kilo inguruko gaztak gehienak (MUN-006/002)**

Egin eta biharamunean ere sal zitekeen gazta. Kiloko gaztak izaten ziren gehienak. Eginaldi bakoitzean bost edo sei gazta egiten zituzten.

### **65. Gazura txerrientzat eta pertsonentzat (MUN-006/003)**

Gazura txerriei ematen zitzaien. Baina egosita, esnegaina bezala ogi gainean ipini eta jan zitekeen. Zenbaitek edan ere egiten zuen.

### **66. Gazta gari artean sartuta kontserbatzen zen (MUN-006/004)**

Gaztaia egiteko moldeak metalezkoak ziren, portzelanazkoak gainetik. Zumitzezko saski batzuetan gordetzen zituzten gaztak. Galtzuaren gainean ontzen ziren. Kontserbatzeko, lehortu eta gari artean sartzen zituzten kutxan.

### **67. Haizeak kalte gaztari (MUN-006/006)**

Haizeak arrakalatu egiten zuen gazta. Arinegi lehortzen zuen kanpoaldea. Zapi batez biltzen ziren gaztak.

### **68. Gatzatua ontzi handitik jaten (MUN-006/008)**

Gatzatua sarri egiten zuten, jai egunez aparte ere bai. Azukrea bota eta ontzi handi batetik jaten zuten denek. Horrelaxe jatekoa zen hura.

### **69. Gatzatua egiten (MUN-006/009)**

Gatzatua egiteko, legarrari neurria hartzea eta esnari tenperatura da oinarritzkoa. Hamar bat minutu inguru behar du gatzatzeko. Behi-esnez egindako gatzatua guztiz ezberdina da.

### **70. Berrizen hika, Gerrikaitzen zuka (MUN-006/011)**

"Jatxi" aditza erabiltzen dute, eta "eratxi" ere ezagutzen du. Berrizen, Arratzun..., leku askotan bizita dago. Berrizen hika egiten zen, baina Gerrikaitzen ez, ezta bere aitak ere. Inoiz ikusi ditu gazteak nagusiei hika egiten, eta txarto irizten dio horri.

### **71. Gaubelak (MUN-006/013)**

Hildakoari gaubela egiten zitzaion. Ez zen bere gustuko ohitura. Arrosarioa errezzatu, ipuinak esan... horrela pasatzen zen gaua.

### **72. Hil-kanpaiak (MUN-006/014)**

Berehala jakiten zen norbait hiltzen zenean. Hil-kanpaiak entzuten ziren, desberdinak ziren sexuaren eta adinaren arabera. Hilzorian zeuden umeak etxean bataiatzen ziren.

### **73. 'Luzia Josepa' da paperetan (MUN-006/016)**

Gurasoek edo aitabitxi-amabitxiek ipintzen zioten izena umeari. Bera 'Luzia Josepa' da izenez, baina inork ez dio Luzia deitu. Beldur ziren jendeak "luzea" ulertuko ote zuen.

### **74. "Malamonja" izan zuen maistra (MUN-006/020)**

Hamabi urterekin amaitu zituen eskolak. "Malamonjie" izenekoak, moja izandakoak ematen zuen Gerrikaitzen eskola. Gero Ganbe auzoan ("Anbre") ibili zen. Lau erregelak ikasi zituzten, ez askoz gehiago.

### **75. Diru-zigorra euskaraz egiteagatik (MUN-006/021)**

Maistra erdaldunak izaten zituzten Ganbe auzoan ("Anbre"), eta euskaraz egiteagatik zigorra izaten zuten. Dirutan ordaindu beharreko zigorra.

### **76. Arratzun, Berrizen eta Gernikan lanean. (MUN-006/022)**

Arratzun ibili zen aitarekin artzain. Ondoren Berrizera joan zen lanera baserri batera. Gero Gernikan hasi zen lanean okindegi batean. Hantxe ikasi zuen erdara apur bat.

### **77. Etxeko lanak zein okindegikoak bere gain (MUN-006/024)**

Etxeko eta okindegiko lanak egiten zituen. Ordainsari txikia zuen. Labeko lanak nolakoak izaten ziren kontatzen du.

### **78. Ahizpa batzuk neskame, beste batzuk fabrikara (MUN-006/027)**

Ahizpa gehienak egon ziren neskame. Eibarrera joan ziren bi izan ezik, hauek lanera sartu baitziren fabrikara. Eskola amaitu eta ardiekin hasi zen bera. Gero, urtebete Berrizen neskame, eta handik Gernikara okindegira.

### **79. "Elizan sartu" barik ezin kanpora irten ama erditu berria (MUN-006/030)**

Zortzi bat egun egin ohi zituen amak ohean umea erdituta gero. Baina gero "elizan sartu" behar izaten zuen umeagaz. Bestela ezin zen kanpora irten.

### **80. Munitibarrera dantzara (MUN-006/032)**

Munitibarrera joaten ziren gaztetan erromeriara. Santa Eufemiara eta inguruko zenbait auzotara ere bai. Munitibarren "Txato"k jotzen zuen soinua eta eurak dantzan aritzen ziren jo eta ke. Eta ilunkeran etxera. Txato soinujolea nor zen.

### **81. Dantza lotua, bekatu itzela (MUN-006/034)**

Dantza soltean eta lotuan, bietan ibiltzen ziren. Lotuan ibiltzea bekatu itzela zen. Abadeek dena jakiten zuten; eta konfesatu ezean ez zegoen jaunartzerik.

### **82. Mezara joateko komeriak neguan (MUN-006/035)**

Bi meza izaten ziren. Bideak lokatzaz beteta egoten ziren eta askotan bustita eta zikinduta heltzen ziren herrira.

### **83. Gizonak eta andreak nahastu barik elizan (MUN-006/036)**

Elizan gizonak atzean eta koruan egoten ziren eta emakumeak, berriz, aulkietan eta aurreko bankuetan. Sepulturan egon behar izaten zuten emakumeek. Lutoa edo horrelako zerbait zutenak aurreko bankuetan.

### **84. Oizen basoa erretzen eta herritarrak prozesioan (MUN-006/037)**

Fraideak "misi&ntilde;oiak" ematera etortzen ziren, eta aitortzak egitera. Behin gogon du herri osoa prozesioan hilerrira zihoala Oizen basoa ikusten zutela erretzen.

### **85. Oinaztarriak etxea erre zienekoa (MUN-006/038)**

Etxea erretzen zenean, etxe-erre eskean ibiltzen ziren, etxea berriz jasotzeko. Eurek, erre zitzairenean, ez zuten ezer eskatu. Oinaztarriak erre zuen. Ezkaratzeko (sukaldeko) leihotik sartu zen. Egun hartako gertaerak. Abereak ateratzea lortu zuten.

### **86. Auzoko gizon bat oinaztarriak hil Oizen (MUN-006/039)**

Oinaztarriaren kontrako erremedioen berririk ez du. Auzoko artzain bat ere oinaztarriak hil zuen Oizen. Arbolaren ondora hurbildu zen; hori arriskutsua eiz da.

### **87. Kandelario, Erramu eta San Joan egunez egiten ziren erritoak (MUN-006/040)**

Trumoi eta zaparrada handiak zirenean kandela isiotzen (pizten) zuten. Kandelario Egunean bedeinkatzen ziren. Erramu Egunez gurutzeak egiten ziren; ereinotzaz ipini eta bedeinkatu egiten ziren. San Juan egunez loreak bedeinkatzen ziren. Lizarra San Joan bezperan ipintzen zen etxeko atean.

### **88. San Juan sua eta kanta (MUN-006/041)**

Aurreko urtean bedeinkatutako lore-sorta erretzen zen san Juan Egunean. "Zapuak eta subiak ondo erre" kantatzen zuten. Kanta erreztatzen du.

### **89. Gabonetako ospakizunak (MUN-006/043)**

Gabon eguneko afaria berezia izaten zen. Gauerdiko mezara jaisten ziren lastazaoz edo farolez argi eginda. Gabon inguruko jakiak. Ogi-koskor sakratuaren usadioa.

### **90. Gabonetan familia elkartzeko ilusioa (MUN-006/045)**

Lehen etxeko denak biltzen ziren Gabonetan. Ilusio handia izaten zuten denak elkartzeko. Ez zen oparirik-eta egiten, asko jota "subatxoak edo", (mazapana).

### **91. Tigreen beldurrik ez, trumoi eta oinaztarriena bai (MUN-010/003)**

1954an joan zen Ameriketara, artzain. Nahi izanez gero, eraikuntzan ere egin zezakeen lan, baina osaba artzainarengana joan zen. Oroitzapen ona du garai hartaz. Trumoi eta oinaztarriekin beldurtzen zen apur bat, baina bestela piztiengatik-eta ez. Ameriketara piztiak ibiltzen ziren arbola gainetan, tigreak-eta (pumak), baina ez diote ezer egiten gizakiari, zaurituta ez badaude behintzat.

### **92. Amerikar lankidearekin ingeles apur bat ikasi (MUN-010/004)**

Amerikar bat izan zuen lankide eta harekin ikasi zuen ingeles apur bat; neska-kontuak erabiltzen zituzten. Irabazi ahala gastatu egiten ei zuen hark, ganorabako itzela ei zen.

### **93. Janaria nahi beste izaten zuten (MUN-010/007)**

Bostak inguruan jaikitzen ziren Idahon. Ardiak mendian behera eraman eta gero lasai norbera. Eguerdian bazkaria prestatzen zuen. Okela nahi beste, bakailaoa ere bai.

### **94. 1.500 ardiko lau artalde osabaren esku (MUN-010/008)**

Osabak lau sail edo artalde zituen. Uztailaren 4an saltzen ziren lehen bildotsak. Hainbat tandatan saltzen ziren. 1.600 ardi inguru zuen artalde bakoitzak. Ahariak ("toruak") botatzen zieten ardiei bere garaian ernalketarako. Argal-argal geratzen ziren beren langintzaren amaieran.

### **95. "Candy" txakurra (MUN-010/010)**

Txakur fina izan zuen bere denbora guztian, Candy. Txakurrak berez ikasten dute, berezko sena ekartzen dute. Umealdi bakoitzean lau edo bost txakur jaio daitezke, baina ez dira denak berdinak irteten.

### **96. Koioteak eta tigreak (MUN-010/012)**

Koiote asko egoten zen, baina tranperoak harrapatzen zituen txakur eder batzuen laguntzaz. Artzainek ematen zoten jaten tranperoari. Hartzik ('otsue') ez zuen ikusi. Tigreak (puma) asko. Koioteek untxiak eta erbiak jaten dituzte basamortuan.

### **97. Untxiak harrapatzeko batidak (MUN-010/014)**

"Debatiak" (batidak) egiten zituzten makilekin untxiak eta erbiak harrapatzeko eta asko hiltzen zituzten.

### **98. Boisen funtzionario euskaldunarekin etxean moduan (MUN-010/020)**

Behin Boisera joan zen paper kontu batengatik. Han funtzionario euskaldun batek hartu zuen. Etxean bezala sentitu zen. Gero ere bisitatu izan zuten eta beti ondo hartuak izan ziren.

### **99. Katagorria, animalia azkarra eta lapurra (MUN-015/001)**

Katagorri ("ardillak") ugari ibiltzen da etxe inguruan. Lapurrak ei dira, intxaur guztiak eramaten dituzte. Gozua omen da jateko, baina eurek ez dute sekula jan. Antzina ez ei zen katagorririk.

### **100. Ogigaztaie (satandera) (MUN-015/002)**

Ogigaztaie (satandera) oso gaiztoa da. Bi klase ei daude. Pozoitsua da. Ihes egiten dio gizakiari. Arratoiak harrapatzen dituzte.

### **101. Erroiak (beleak) eta beste lapur batzuk (MUN-015/004)**

Erroiak (beleak) dira hemengo lapurrak. Landetxean ezkaratzeko (sukalde) leihotik eramaten dituzte intxaurrak. Baina hanka biko lapurrak (gizakiak) ere badaude, sagarrak, piperrak eta abar osten dituztenak.

### **102. Perretxikoak, sagarrak, madariak... hartu eta eroan (MUN-015/006)**

Txanpinoi asko egon zen duela bi urte. Kargu hartu zion Mirenek bere lursailean batzen ari zen gizon bati. Madariak eta sagarrak osten ere harrapatu izan dute jendea.

### **103. Eskekoak (MUN-015/007)**

Lehen eskeko asko ibiltzen zen. "Don Felipe" izenekoari beldur handia zioten. Gero "hungrianak" ibiltzen ziren; Errumaniakoak izango ei ziren. Haiek ere okerrak ziren.

### **104. "Motxailak", bertako ijitoak (MUN-015/008)**

Ijitoak zaldi-gurdietan ibiltzen ziren. Asko osten zuten. Behin oiloa harrapatu zieten. Orain ijitoak txatarrero bihurtu dira. Formalak ei dira. "Motxailak" deitzen zaie bertako ijitoei, ijito euskaldunei. Auto zaharra ere motxaila batek erosi zion. "Jittanuak" kanpotik etorritakoak dira.

### **105. Hemengo behi arraza berezia ijitoek gorde dute (MUN-015/009)**

Bertako ijito ezagun batzuk urtero eramaten zituzten behiak Gasteizko feriara. Antzinako behi arraza berezia eurei eskerrak gorde da. Jatorrak ei dira.

### **106. Karobiak (MUN-015/011)**

Karea egiten zen. Etxetik hurbil dago karobi-zuloa. Etxeko hondakinak karobian erretzen zituzten lehenago. Kareharriz egiten zen karea. Sororako erabiltzen zen. Ona da lurrarentzat.

### **107. Aranek hazten ziren karobi inguruan (MUN-015/014)**

Karobiaren bueltan aranek egoten ziren. Gustura jaten zituzten. Patxarana egiteko erabiltzen dira.

### **108. Freskerak, orduko hozgailuak (MUN-015/016)**

Hozgailurik ez zen orduan, baina bai "freskerak" aberatsen etxeetan. Legatzak pare bat egun irauten zuen. Antxoak eta palometak (papardoak) jaten ei ziren gehienbat baserrietan. Oiz mendian baziren neberak (elurzuloak).



### **109. Peru eta Marixe ipuinen protagonista (MUN-015/018)**

Txikitan ipuin asko entzundakoa da Miren artoa zuritzen zuten bitartean. Ahaztuta ditu. Peru eta Marixe izaten ziren protagonistak.

### **110. Abendu-kantak eta Urteberri eta Erregenetakoak (MUN-015/020)**

"Abendu katetan" ibilitakoa da Jesus. Ilara biko soinua jotzen zuen. Gari-joteetan-eta jotzen zuen. Abendu kantaren hasiera.

### **111. Maritxu 13 urte zituenetik neskame lanetan (MUN-016/005)**

Etxean hainbeste izanda, lan egin behar izan zuten gazte-gaztetatik. Maritxu 13 urterekin neskame joan zen, umeak zaintzera. Neskame lanetan aritu zen etxean apaizak, maisuak, maistrak... hartzen omen zituzten, apopilo. Jornalik ez zuen ikusten berak, etxeko jabea amarekin konponduko zelakoan dago. Ondoren, han eta hemen ibili zen neskame lanetan.

### **112. Elizpeko eskolara (MUN-016/006)**

Eskolara ez joatearren itaurrean ere ibiltzen omen ziren. Hirurak eskola berean ibili ziren, eliza azpian zegoen nesken eskola Munitibarren. Mutilen eskola, ostera, udaletxea zegoen lekuan zegoen. Errekreoan, eskailerak gorotzez beteta egoten zirenez, eskailerak garbitzen egon behar izaten zuten.

### **113. Julia Mendiolarra neskame gisa (MUN-016/007)**

Julia Mendiolan egon zen neskame gisa denboraldi batez.

### **114. Bataioak (MUN-016/009)**

Bataioetan familia elkartu eta haurra bataiatu ostean, eliza ondoan tabernarik egonez gero, kafesne bat hartu edo zerbait jateko aprobetxatzen zuten. Haurrari amabitxiak edo aitabitxiak jartzen zion izena. Etxean ere bataiatu ohi ziren haurrak, zerbait pasatuz gero bataiatuta egon zedin.

### **115. Hiletak (MUN-016/010)**

Lehenengo, bigarren eta hirugarren klaseko hiletak izaten ziren orduan. Sepulturak egoten ziren elizan, kandelekin, eta dirua batzeko otartxo batekin. Apaizak meza amaitu ostean, Pater Noster errezatzen zuen sepultura aurrean. Gertukoren bat hiltzen zenean, lutoa egin ohi zuten, mantila luzeak janzten zituzten lehen, gerora arropa beltzak janztearekin nahikoa izaten zen.

### **116. Kanpaikada desberdinak hildakoa nor zenaren arabera (MUN-016/011)**

Luto garaian ezin izaten zuten dantzarik egin. Kanpaien bitartez jakiten zuten herrian norbait hil zela. Betiko kanpaikadez gain, hil zena gizonezkoa bazen hiru kanpaikada gehiago entzuten ziren, emakumezkoa bazen hildakoa, bi gehiago, eta haurra izanez gero, txilina jotzen zuten. Gauean gaubela izaten zen, jendea hildakoaren etxera gerturatzen zen arrosarioa errezatzera, hori ere amaitu zen, arrosarioa errezatu baino, txutxu-mutxuka aritzen zelako jendea. Hileta egunean, familiakoak bazkaltzera joan ohi ziren elizkizunaren ostean. Gorpua kanposantura eramán aurretik, elizara eramaten zuten.

### **117. Jaunartzea (MUN-016/012)**

Jaunartzea sei eta zazpi urterekin egin zuten. Jaunartzea egin baino bi hilabete lehenago, doktrina ikasi behar izaten zuten sakristian, neskak eta mutilak elkarrekin. Jaunartzeko arropak herriko jostun batek neurrira egin zizkien.

### **118. Ezkontzak (MUN-016/013)**

Gehienak beltzez ezkontzen ei ziren orduan. Julia ere beltzez ezkondu zen, Maritxu zuriz, eta Angelita lilaz. Ezkondu eta ospakizunak izaten ziren orduan ere, gerora sindikatua jarri zuten lekuan ospatu zuten ezkontza, eta bidaiatxoia ere egin zuten, Bilbora, Gernikara, eta baita Madrilera ere.

### **119. Uztarria, nabasia eta goldea (MUN-016/015)**

Paretan zintzilik dauden lan tresnei buruz dabilta, uztarria eta nabasia zertarako erabiltzen ziren azaltzen dute. Goldea ere bazuten baserrian, lurra lantzeko.

### **120. Auzolanean lurra laiatzen (MUN-016/016)**

Auzolanean egiten zuten lan asko, lurra laiatzen, eta abar. Angelitak inoiz ez zuen lurra laiatu, beste biak bai. Gari-jotzean ere elkarri laguntzen zieten kofradia denek. Uda nahiz negu, berdin egin behar izaten zen lana baserrian.

### **121. Jolasean, kubika eta marraka (MUN-016/017)**

Lan asko egon arren baserrian, jolaserako tarreak ere hartzen zituzten, kubika eta marraka aritzen ziren askotan.

### **122. Aponekin eta sokadantzan (MUN-016/019)**

Neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten errekreio garaian. Aponekin jolasten zuten batzuetan, sokadantzan besteetan. Zuhaitzen sustrai edo adar malguekin aritzen ziren sokadantzan, kantuan eta saltoka. Sokadantzako abesti bat abesten dute, gaztelera, eta aponekin nola jolasten zuten ere azaltzen dute. Bildotsak hiltzeko desiratzen egoten ziren, aponak hartzeko, margotu ere egiten zituzten aponak. Pilotan ez ziren aritzen, mutilak gehiago.

### **123. "El elefante" komuneko papera (MUN-016/020)**

Komunik ez zegoen garaian, sabaian eserita egon ahal izateko egituraren bat prestatzen zuten egurrekin, eta bertan egiten zituzten egin beharrekoak, dena kortara erortzen zelarik. Ipurdia garbitzeko, belar lehorrak edo egunkari zatiak erabiltzen zituzten. "El elefante" komuneko papera geroko kontua izan zen.

### **124. Menda belarrak izaretan (MUN-016/021)**

Igandeetan garbitzen zuten euren burua, galdarak ipintzen zituzten inguruan, eta haiekin busti eta garbitzen ziren. Sutautsa ere erabili izan zuten, arropak garbitzeko. Menda belarrak eta bestelakoak erabili izan zituzten izara artean sartzeko, ondo usain zezaten izarek. Zorriak zirela-eta, ez omen zuten zorri askorik izaten.

### **125. Etxeko garbitasuna (MUN-016/023)**

Astean behin garbiketa orokorra egiten zuten etxean, sukaldea-eta egunero garbitzen zen. Sukaldeko lurra porlanezkoa izaten zen normalean. Izarak garbitzeko, aurreko egunetik beretzen jarri behar izaten ziren, ur berotan.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com